



## **DIRU-ITURRIAK**

Gure diru iturri nagusia hostel, hotel, kafetegiak eta bestelako jatetxeak edo tabernak izango dira. Alde batetik, hostel eta hoteletan gure webgunearen bidez egingo dira erreserbak, eta erreserba hauen portzentai bat guretzat izango da. Portzentaia enpresa bakoitzarekin eztabaidatuko dugu, baina gutxi gorabehera %10 ingurukoa izango da. Beraz, ezinbestezkoa izango da guretzat enpresa hauei ahalik eta publizitate gehiena egitea, izan ere, beraiek geroz eta diru gehiago lortu erreserben bidez, guk ere diru gehiago lortuko dugu.

Beste aldetik, kafetegi, taberna eta jatetxeei gure webgunean, guk emango diegun jasangarritasun bermearen bidez, publizitatea egitearen truke aurretik ezarritako diru portzentai bat jasoko dugu. Beraz, hostel eta hotelekin ez bezala, enpresa hauen egoera ekonomikoak ez du eraginik izango guk jasoko dugun diruan; enpresa gaizki edo ondo joan ezgero diru portzentai bera jasoko dugu guk. Honen arrazoi logistikoa da: oso zaila izango litzateke jakitea bere bezeroak gure jasangarritasun bermearengatik edo bestelako arrazoi batengatik joan diren kafetegi, taberna edo jatetxe batera.

Bi diru-iturri hauek hilabete bukaeran jasoko ditugu eta enpresak guri dagokigun dirua ordaintzeaz uzten duen momentuan gure bermea galduko du. Horrez gain, gurekin harremanak abisurik gabe moztu ezkerro beraiekin aurretik adostutako diru kantitate finko bat ordaindu beharko digute.

Horrez gain, enpresa sortzeko dirua beharko dugu, eta horretarako mailegu bat eskatuko diogu Kutxabank bankuari. Hau lokalaren lehen gastuak, langileak eta hasieratik izango ditugun hainbat gastu kitatzeko erabiliko ditugu. Mailegu hau itzultzen joango gara enpresak dirua irabazi ahala.